



Nazioarteko Dantza Egunean ekimenak egingo dituzte Getxon, Gorkizen, Leioan eta Erandion. ▶18

Aurtongo Kanpomartxoak Lutzana beteko du ekitaldiz: euskarak, musikak eta dantzak girotuko dute Erandio domeka honetan. ▶8



hiruka

Uribe Kostako astekaria



92. zenbakia

2017ko
apirilaren 27tik
maiatzaren 3ra arte

«Jaurlaritzari % 5eko igoera bera eskatzen diot EHUrentzat»

Nekane Balluerka Lasa EHUren errektoreak balantzea egin du ehun egunen ostean. Berbabide izan ditu ikerketa, titulazioak, berdintasun-plana, aurrekontuak, Medikuntza-fakultatearen lekuz aldatzea, euskalduntzea eta jazotako liskarrak. ▶ 14-15



HERRIZ HERRI GURE ESKU DAGO

Galdeketara bidean... sei, prest!

Gure Esku Dagok dena prest du herriz herri galdeketak egiteko; maiatzaren 7an lehenengoa izango da gurean.



Gure Esku Dago herri-ekimenak sortutako Uribe Kosta Ados taldeak galdeketa egingo du Barrikan, Gorkizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen, maiatzaren 7an, domekan. Getxon eta Leioan ere galdeketa egiteko bidea hasi dute; daborduko sinadurak batzeari ekin diote, jaso beharreko babesa lortzeko. Berangon ere egiteko horretan hasi dira oraintsu. ▶2, 5, eta 7

Hezkuntza gehigarri berezia

Matrikulazio-garaia

2017-18
ikasturtea

Izena emateko garaia da!

Plentziako Udalak 2017ko aurrekontuak onartu ditu, EH Bilduren eta EAJren arteko akordioagaz. ▶6

Barrikabaso auziaren kalte-ordainaren erdia zortzi urtean ordaintzea proposatu du Barrikako Udalak, interesak barne. ▶6

Guatemalan laguntzeko elkartasun-ekimena egingo dute domekan, Faturan, ur-kiroletako zaleei begirakoa. ▶20

Hirukira Olgetan, umeei begirako txokoa aukeran dute txikienek jolasteko, hilabete amaiera guztietan legez. ▶22-23

Aiboako segurtasuna, hobetuz

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasean, Aiboako metro-geltokiko sarbidearen inguruan segurtasuna hobetzea eskatu dute auzokideek.



Metro-geltokiaren segurtasuna hobetzerako 100.000 euro bideratzea proposatu dute.

Aiboa metro-geltokiko sarbidearen inguruan segurtasuna hobetzeko proposamena izan da boto gehien batu dituen, Gobernu-taldeak bultzatutako aurrekontu parte-hartzaileen proiektuan. Hainbat proposamenen artean botoa emateko aukera izan zuten herritarrek. Guztira jasotako 986 boto-paperekin, baliodunak 817 izan dira.

Proposatutako zortzi proiektuen artean, Aibo metro-geltokiko sarbidearen segurtasuna hobetzea lehenetsi dute auzokideek. Egiteko horretarako 650.000 euro bideratu beharko dituztela aurreikusi du Udalak. Ezarritako baldintzen arabera, aipatutako proiektuaz gainera, Udalak erabaki beharko du bestelako proposamenen artean zein gauzatuko duen, aurtengo udal-aurrekontuan aurreikusitako milioi bat euroko diru-partida bete arte. Amaia Agirre Gobernu Irekiaren zinegotziak oso po-

sitibotzat jo du herritarrek izan duten parte-hartzea, udal-aurrekontuei ekarpenak egin ahal izateko aurreko lehenengo aldiz martxan ipini den honetan.

Gainontzeko proiektuak

Aiboa metro-geltokiko sarbidearen segurtasuna hobetzeko proposamenaz gainera, Gobernu-taldeak beste zazpi aukera ipini zituen mahai-gaiean. Hala, bigarren bozkatuena zahartze aktiboari lotutako jarduerak egitea izan da; horretarako 100.000 euro bideratzea proposatu dute. Hurrengoak honako hauek izan dira: enpresei eta pertsona ekintzaileei laguntzak ematea (50.000 euro); Portu Zaharraren irisgarritasuna hobetzea (700.000 euro); txakurren kakak kontrolatzeko jarduerak egitea (100.000 euro); formatu txikiko kontzertuak egitea (40.000 euro); eta seinaleak ipintzea turismoa sustatzeko (40.000 euro). ◀

Konpromisoak berretsi ditu alkateak

Itzubaltzeta/Romoko Errekagane kalean dagoen pabiloi zaharrak su hartu zuen joan den apirilaren 19an. Hori dela eta, bertako lurzorua eta pabiloien etorkizuna erabakitzeko egunotan egiten dabiltzan batzaren berri eman du Gobernu Taldeak. Azaldu duenez, suteak eragindako kalteen ondorioz, eraikina ia osorik eraitsi behar izan dute. Udal-teknikariak txosten bat prestatzen dabiltzala jakinarazi dute Hirigintza eta Ingurumen Batzordean, inguru horren egoera urbanistikoa zehazteko; horien erabilera ekipamendu publikotzat dago sailka-

tuta. Gai horri dagokionez, pabiloiak erosi eta horiek beraien hiri-ingurunerara egokitu eta estetikoki doitzeko konpromisoa dagoela gogoratu du Imanol Landa alkateak. Azaldu duenez, erabilera mistokoa izatea da ideia: zati bat Itzubaltzeta gaztetxea kudeatzen duen gazte-kolektiboarentzat; beste zati bat, Udalaren erabileretarako. EH Bilduk eta GUK taldeak konpromiso hori betetzea eskatu diote Gobernu Taldeari; Getxoko PPK, ordea, inguru horretan aisialdiko parke bat egitea proposatu du. Euren aldetik, gaztetxe kideek berretsi dute ez dutela «amore emango». ◀

Fadurako kirol-parkea diseinatzeko, prozesu parte-hartzailea

Getxo Kirolak udal-erakundeak Thinking Fadura (Fadura Pentsatuz) izeneko prozesua martxan ipini du. Ekimen horretan herritarrek parte hartu ahal izango dute, Fadurako kirol-instalazioak aldatzeko eta gune publiko berria diseinatzeko, Udalak azaldutakoaren arabera. Bertan izango dira sarrera libreko parkea, alde batetik, eta Getxo Kirolakeko abonatuak kirola egiteko instalazioak, beste aldetik. Thinking Fadura prozesuan, ekainera bitartean diagnostikoa egingo dute. Horrela, eragile garrantzitsuak identifikatu eta horiekaz harremanetan ipiniko dira. ◀

info+: www.hiruka.eus/getxo

Txakurrak solte ibiltzeko ordutegia zabaldu du Udalak

Getxon baimenduta dauden aisiarako guneetan txakurrak lotu barik ibiltzeko ordutegia zabaldu du Udalak, 18:00etatik goizeko 11:00ak arte. Horrenbestez, bost ordu gehiagoz ibili ahal izango dira txakurrak solte. Bost dira ordenantzak finkatzen dituen aisia-eremuak (lorategiak eta parterreak salbuetsita daude): Txurrukako kaia eta Areetako hondartza; Portu Zaharreko zelaigunea eta Ereagako hondartza; Arrigunagako hondartza; Gobela ibai ondoko pasealekua (Gobeloki, La Avanzada errepidetik Lexarretaraino) eta Makaleta etorbidea (Lexarretatik Salsidu etorbidera); eta Galeako bidea (Aixerrotatik Sopolako mugaraino). ◀

prentsa · aldizkariak

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

Portu zaharra 35. 48991 ALGORTA
94 468 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

Ideen Trafikoa

SANTIAGO SAINZ ROBLES
Ciudadanosen bozeramailea Getxoko Udalean

Bide guztiak Erromora joaten dira

EAJk ez du zintzo jokatu Kultur Etxearen egitasmoan; erromotarrek kultur ekipamendu berria nahi zuten, bai, baina inola ere ez jaso dutena. Lehenik eta behin, handiegia da, eta estetikoki ere ez da inoren gustukoa. Gainera, inork ez du nahi antzinako eraikinik botatzerik. EAJk eraikin hori erabiltzaile barik, hutsik nahi du, horrela, eraikina bota eta BOEak bertan erakitzeke. EAJk beraz agindutakoa bete du, bai, baina auzotarren beharrian eta nahiei entzun gabe. Horren harira gogoratu ditut bidegurutzetan deabruarekin egiten omen ziren hitzarmenak, sinatzean akordio ezin hobek ematen zutenak, baina gerora emaitzak ez baitziren espero bezain onak. ◀

Getxo



Udalerriko hainbat auzokidek osatu dute Batzarde Sustatzailea. ZURIÑE GONZALEZ

Sinadura-bilketa hasi dute, galdeketarako

Getxon galdeketa egiteko makinaria guztia martxan ipini duela ohartarazi du Gure Esku Dago taldeak.

Getxoko Gure Esku Dago hilibeteak zeroatzen herri-galdeketa egiteko lanketa egiten. 2017ko martxoaren 7an egindako bileran erabaki zuen taldeak galdeketaren alderdi teknikoak eta funtzionalak batzarde sustatzaile plural baten esku uztea; eta joan den apirilaren 6an aurkeztu zuten berori. Lau ardatzetan jaso dute Getxon herri-galdeketa bat egitearen helburua: Erabakitzeko eskubidearen aldeko gihar soziala handitzea; ez da emaitza kuantit

tatiboa lehenesten, kualitatiboa baizik; demokrazian sakontzea; eta herritarrek ahalduz sakontzea. Sinadura-bilketa ere martxan ipini dute. Gure Esku Dago onetsitako protokoloaren arabera, 16 urtetik gorako populazioaren (68.765) %5aren sinadura lortu behar dute; hau da, 3.438 firma. Hori da minimoa; baina elkarteak kopuru hori biderkatu gura du. Sinadurak batzeko boluntario-sare bat antolatu dute, eskuz esku jasotzeko sinadurak, eta mahaiak ipiniko dituzte, aldi behin, auzoetan, sinatu gura duen jendeak hara hurreratzeko aukera izan dezan. Hilabete biko kanpaina izango dela ohartarazi dute. Hala, ekainean jakitera emango dute zenbat sinadura jaso dituzten; horren arabera, galdeketara deituko dute. ◀

Getxoko historian emakumeek egindako ekarpena, aztergai

David Beorlegi Zarranzek aurkeztu duen *El asociacionismo femenino en Getxo (1960-2016)* lana aukeratu dute Getxoko historian emakumeek egindako ekarpenaren inguruko III. Ikerketa-beka jasotzeko. Getxoko Udalak emango du 10.000 euroko beka hori, eta horren helburua da emakumeek historia eta bizitza kulturalean,

sozialean, ekonomikoan edo politikoan egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera ematea. Hirugarren edizio honetara zortzi proposamen aurkeztu dituzte, eta baldintzen arabera, beharrezkoa da aukeratutakoa urtebukaerarako amaituta egotea. Getxoko emakumeen elkartearen 1960tik orain arteko historia aztertuko du proiektuak. ◀

Maiatzaren 19ra arte egin daiteke txosna ipintzeko eskaera

Algortako, Portu Zaharreko eta Itzurbaltzeta/Romoko jaietan txosna ipintzeko eskaera aurkezteko epea zabaldu du Getxoko Udalak. Txosna eskatu ahal izateko, besteak beste, ezinbestekoa da erakunde eskatzailea elkartearen udal erregistroan, gutxienez, 2016ko maiatzaz geroztik izatea. Eskaerak egiteko epea maiatzaren 19an itxiko dira. Oinarriak eta gainontzeko dokumentazioa udal webgunean (Oharrak eta Berriak atalean) HABetan eta Jai Arloan (Tangora Etxean, 2.solairuan, Algortan) daude ikusgai. ◀

info+: www.getxo.eus

Getxoko leku-izenak ezagutzeko ibilaldiak martxan dira, berriro

Bizarra Lepoan euskara elkarteak toponimia-ibilbideak antolatu ditu, beste urte batez. Lehenengo ibilaldia apirilaren 29an, izango da, zapatuan, udalerriko hezeguneetara joango dira; azkena, ekainaren 17an egingo dute, Betiko Getxo ibilbidea. Ekimena ikastetxei, euskaltegiei eta elkartei begirakoa da, baita herritar denei ere. Ibilbideak betiko lekuetatik izango dira aurreko edizioetan legez, udalerriko toponimia, historia, ondare kulturala, paisaia, geologia eta fauna ezagutu ahal izango dira, besteak beste. ◀

izen-ematea: 688 635 350

info+: www.hiruka.eus/getxo

Udal Euskaltegiko irakasleek euren lanpostuen balorazioa egitea aldarrikatu dute

Getxoko Udal Euskaltegiko behar-ginek aspaldiko aldarrikapen bat mahai-gaineratu dute: irakasleen lana baloratu eta dagokien maila aitortzea. Xiberu Etxebarria irakasleak gogoratu duenez, «duela 12 urteko borroka da hau». Azaldu duenez, udaletxeetako langileen lan-baldintzak jasotzen dituen Udalhitz hitzarmenaren arabera, Getxoko Udal Euskaltegiko behar-ginek A2 mailako 17. kategoria dute, «baina 13. kategoriakoak bagina bezala ordaintzen digute oraindik». Hori dela eta, euren lanpostuen egokitzape-

na egitea aldarrikatu dute irakasleek. Horren harira, Koldo Iturbe Kultura zinegotziak azaldu du egokitzapena, izatekotan, lanpostuen balorazio baten ondoren eman behar dela, «eta hori, udaletxean egiten ari den balorazio-prozesuaren ostean hasiko da erakunde autonomoetan». Bere aldetik, Etxebarriak salatu du balorazio horren begira daudela aspalditik, «2010ean esan genuen hori onartzen genuela; baina, 2017an gaude eta oraindik ez da ezer ere ez mugitu. Dena balora deza-tela; emaitza onartuko dugu». ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



hiruka
zaitez!

Urtean
35€
baino ez



Trukean:
zozketak, sariak,
astekaria eguaztenero...

Erando

Emakume migratuak, prest

Erandioko Berdintasun Zerbitzuak barikuan abiaraziko du emakume migratuen prestakuntzarako elkargunea.



Ainara Azpiazu komikilariak Astrabuduan gidatutako horma-irudi kolektiboa. © ECUADOR ETXEA

Emakume migratuen prestakuntza-talde horren helburua mota denetako proiektuak, esperientziak eta sentimenduak partekatzea da. Berdintasun teknika-riek gogorarazi dutenez, erronka askori aurre egin beharra dago, emakume gisa ez ezik, atzerritar eta langile gisa «zailtasun eta oztopo denen gainetik» atera beharra baitago. Elkargune-ko prestatzailea Cony Carranza izango da. Ikastaroak barikuan, hilaren 28an, aurkeztuko dituzte topaketa informal baten bidez, 18:00etan, Behargintza-ko egoitzan (Alzagako Desanexio kalea, 4). Bitartean, haurtzaindegi zerbitzua egongo da, 3 eta 10 urte bitarteko umeentzat, aurretik eskatuz gero. Prestakuntzaren gainerako saioak leku eta ordu berean izango dira, honako barikuetan: maiatzak 12, maiatzak 26, ekainak 9, ekainak 23 eta uztailak 8. ◀

info+: berdintasuna@erandio.eus / 944 175 616



LABetik atera berri

IRATXE AZKUE REINALES
LABeko Eskumaldeako idazkaria

Langileok burujabetza osoa aldaketarako

Gehiengoa egoera bidegabean gauden bitartean, krisia sortu eta hedatu zutenak gustura dabilta, eta horrela jarraitzeko asmoa daukate. Orain ipuin berria asmatu digute: errekupe-ratio ekonomikoa. Asmoa argia: gezurra irentsita, gu geldi-geldi egotea, euren negozioei trabarik egin gabe.

Baina zer susperraldi ekonomikori buruz ari gara? Hobeto esanda, noren susperraldia? Egia da enpresa handiek dirua irabazten dutela, eta asko, gainera. Petronorrek, adibidez, 222,4 milioi irabazi zuen iaz. Baina milioi horiek bakarrik edukiko dute isla beraien administrazio kontseiluetan, horietan non ez diren falta lagunak, familiakoak, bikoitekideak, alderdi politiko batzuetako militanteak... horientzat guztientzat bai dagoela susperraldi ekonomikoa. Baina langileontzat gauzak oso desberdinak dira; martxoan 222.629 langabete ziren Hego Euskal Herrian; azken 5 urteetan langileon erosteko ahalmena %4,8 jaitsi da, zerbitzu publikoen pribatizazioa gori-gorian dago, prestazio sozialen eta DBEren (Diru-sarrerak bermatzeko Errenta, edo RGI gaztelaniaz) murrizketak etengabeak dira. Laburbilduz, pobrezia eta prekarizazioa langilerientzat. Gutxi batzuek horrenbeste irabazten jarraitzeko, gainontzeko guztiok asko daukagu galtzeko.

Eredu ekonomiko eta sozial hau aldatu behar dugu, bestela krisia besterik ez dugu izango. Eta irtenbide bakarra prozesu soberanista martxan jartzea da. Euskal herriaren orainari eta etorkizunari buruzko erabakiak herriaren esku egotea delako egoera iraultzeko bide bakarra. Burujabetza euskal estatu sozialista sortzeko. Justizia sozialean eta herriaren mesedetan oinarritutako euskal estatu bat, euskal estatu bat non herritar guztiok ondo bizi ahal izango garen. ◀

Udal Musika Eskolak matrikulazioa irekiko du martitzenean

Erandioko musika-eskolak matrikula egiteko epea zabalduko du datorren maiatzaren 2an, martitzenean. Edozein pertsonak izena eman dezake, hilaren 19ra arte, lau urtetik gorakoa bada. Denera, 15 musika-tresna jotzen ikasteko eta hamabi taldetan parte hartzeko aukera egongo da Astrabuduan eta Alzagan. Eskolan irakasten dituzten musika-tresnak ondoko hauek dira: pianoa, gitarra, biola, biolina, biolontxelo, baxu elektrikoa, gitarra elektrikoa, flauta, panderoa, bateria, akordeoia, klarineta, saxofoia, tronpeteta eta trikitia. Izena emateko bidetako: Josu Murueta kultur etxea, telefonoz edo posta elektronikoz. ◀

info+: 944 170 776 / smeskola@erandio.eus



Bonbardaketen biktimei gorazarre egin zien Erandioko Udalak, joan den martitzenean; egun horretan bete ziren 80 urte Kondor Legioak Alzagako Ibarra kalera bonba bat jaurti zuenetik. 1937ko apirilaren 22tik 26ra, hegazkinek 29 hildako eta 37 zauritu eragin zituzten.

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisauna eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

txakoli
mota gane Tx
txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34
(Akarilanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 • www.txakolimotagane.com

Leioa

Ekinnnet martxan ipini dute

Ekintzailtza bultzatu gura duen ekimenak zortzi topaketa prestatuko ditu hurrengo hilabeteetan.

Udalaren Ekonomia, Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu arloaren bidez, eta Behargintza Leioagaz batera, ekintzailtza bultzatu gura duen ekimena da Ekinnnet. Helburu nagusia da proiektu ekintzaileen pertsonen laguntza eskaintzea, *networking*-eko jarduerak diseinatu, besteak beste. Horretarako, hainbat topaketa prestatu eta eskainiko dituzte, urte osoan.

Hain zuzen ere, topaketa horien arteko lehenengoa pasa den martxoaren 30ean egin zuten, Leioako Welink-en. Bertan izan zen Think of Marketing enpresako Beatriz Barrio. Orduan, *Nola eraiki sozial media estrategia eragin-*



Maiatzean izango da hurrengo topaketa. © GAZELOG

korra gaiaren inguruko berbaldia eskaini zuten enpresariak.

Gosari-hitzorduak

Guztira, zortzi topaketa antolatuko dituzte aurton. Bilerak formalak baino, zgosari informaleko topaketa inspira-

garriak» izango dira, ezagutza berriak barneratu eta profesionalen kontaktu sarea zabaltzeko baliagarriak. Hurrengoak, maiatzean, urrian eta azaroan izango dira. Ostera, ekainekoak eta abendukoak ekintzaileen kontaktu sarea sendotzera zuzenduko dituzte. ◀

Azaroaren 5ean egingo du galdeketa Gure Esku Dagok

Leioan azaroaren 5ean egingo duen herri-galdeketa aurkeztu zuten herriko Gure Esku Dagoren taldeak, apirilaren 7an, Kultur Leioan. Ekitaldian Gure Esku Dago ekimeneko Zelai Nikolasek eta Gipuzkoako Goierriko Anartz Goiak parte hartu zuten. «Lagungarria izango da leioaztaren artean zubi gehiago zabaltzeko, erabakitze eskubidearen aldeko borondatea gehiago ehuntzeko, eztabaidatzeko eta euren iritzia adierazteko», azaldu zuten Gure Esku Dagokoek. «Taldea anitza da, auzo, adin, genero eta sentsibilitate politiko desberdinekoak. Bakoitzak dakiena edo/eta ahal duena ematen dio taldeari, hau talde-



© GURE ESKU DAGO LEIOA

lana da eta», azpimarratu zuten taldekoek, Leioako aurkezpenean.

Leioako aurkezpenaren ordu berean, Getxon ere Gure Esku Dagoko Batzorde Sustatzailea aurkeztu zuten, eta sinaduren batzea iragarri. Sinadura guztiak ekainean zenbatuko dituzte. ◀

Kontratazioarako diru-laguntzak, herriko enpresentzat

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren Tokiko Enplegu Planak programaren bidez, herriko enpresei bultzada eman gura die Leioako Udalak kontratazio diru-laguntzak. Horretarako, herriko langileen bigarren diru-laguntzak martxan ipini ditu. Deialdian parte hartzeko hiru baldintza betetzea beharrezkoa da: enpresaren helbide soziala Leioan izatea, lanaldi osoko kontratuak sinatzea sei edo hiru hilabeteko iraupeneko diru-laguntzak jasotzeko eta emakumeak kontratatzea lehenetsiko da. Prozedura bi daude: bata, lanerako zailtasunak dituzten enpresentzat, eta, bestea, gainontzeko kasuentzat. ◀



Lumak astindu

KOLDO TELLITU MEJIA
Ikastolen elkarteko lehendakaria

Erantzukizuna historiaren irakaskuntzan

Duela aste batzuk, ikastolen elkartearen eskutik Euroclio, Europako historia irakasle elkartearen 25. Kongresua ospatu zen Donostian, gaur egun historia irakasteko norabideak eta urratsak konpartitzeko xedearekin.

Zenbait egunez memoria historikoa, kulturartekotasuna, bizikidetz... bezalako gai potolo eta serio bezain delikatuak tratatu zituzten, historia irakasleen kasuan erantzukizun handikoak gainera, gai horiek gure seme-alabei transmitituko dizkietenak beraiek izango baitira hein handi batean. Gaur egun elkarrekin bizitzeko bitarteko gisa iraganaren ezagutza bultzatzen dute, etorkizuna eraikitze bizikidetzan oinarrituta.

Gureak, herri guztiek bezala bere testuinguru propioa du, korapilatsua, gatazkatsua askotan. Azken urteetan ahalegin handiak egiten ari gara historiaren ikerkuntzan eta memoriaren berreskurapenean.

Ez nau kezkatzen irakasleek gaitasunak, horren zalantzarik txikiena ere ez baitut, bai ordea curriculumaz ezartzeko ardura dutenek irakasleen xedeekin bat egingo ote duten. Hala izatea espero eta desio dut, behin baino gehiagotan ikusi eta sufritu dugulako jada ezarritako ordenari men egitearren historiaren irakurketa gezurrezko eta azientifikoak nola gailendu diren.

Arlo honetan ere, Euskal Curriculumaren bitartez, gure alea jartzen ari gara ikastolok sortu ginenetik. Lan neketsua da, bai, zaila; eta bidean traba ugari aurkitu ditugu eta jarri dizkigute. Baina esker onekoa ere bada lan hori, gure gaur egungo umeak etorkizuneko herritar buru aske izan daitezen dihardugulako, bizikidetzan oinarrituta, beren garapen pertsonal eta kolektiboan laguntzen ditugulako. Hezkuntza eraldatzen ari gara, gizartea eraldatzeko. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

SOPELAKO HAUR ESKOLA

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

MAIATZAREN 2tik 12ra
Ordutegia: 10:00-11:00/13:30-14:30

JARDUNALDI IREKIAK

Malatzaren 2tik 5era 10:00-11:00
Maiatzaren 4an 16:00-18:00

Tel: 946 762 559
Antzar Potzu, 12, SOPELA
www.haurreskolak.eus



Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Gure soldatekin zer gertatzen ari da?

Fase neoliberalera gero eta era sakonagoan ezartzen da biltza etengabe botere ekonomiko eta finantziera. Ekimen hori, gainera, areagotu egin da 2008az geroztik. Ez dute nahi kontuan hartu dezagun 2016an sortu den aberastasuna historiako handiena izan dela eta enpresa handien mozkinak gero eta erraldoiagoak direla.

EParen arabera, 2015ean hileko batez besteko soldata gordina 12 ordainalditan 2.250,20 eurokoa zen EAEn. Aurreko urtearekiko %4,8 hazi ziren soldata horiek. Epe luzeko joera aztertuz, batez besteko soldatak hazi egin dira 2008-2015 epealdian %6,2 EAEn. Epealdi horretan, KPI metatua %10 izan da. Horregatik, EAEko soldatek 3,8 puntuko eros-ahalmena galdu dute. Azken urteotan aberastasunaren gero eta zati murriztagoa bideratzen da lan errentetara. Zehazki, BPGaren %46,7 bideratu zen 2015ean EAEn lan errentetara. 2010ean, ordea, aberastasun guztiaren %50,2 bideratu zen. Horrela, guztira 1.582 milioi euro gutxiago eskuratzen ditu langileriak HEHn azken bost urteotan (992,8 milioi gutxiago EAEn eta 589,7 gutxiago Nafarroan). Hitzarmen motaren arabera, bai gizon eta baita emakumeen kasuan ere soldata altuenak enpresako edo lantokiko akordioa dutenek jasotzen dituzte: 2.751,08 EAEn.

Soldaten baitan diskriminazio mota ugari ematen dira:

-Emakumeen soldatak gizonen laurdena eta herena artean txikiagoak dira.

-Gazteen soldatak 45-55 urteen artekoen erdia dira.

-Kontratu partziala dutenen soldatak jardunaldi osokoen soldaten herena dira.

-Kontratu tenporala dutenek finkoa dutenen soldataren heren bat gutxiago dute. etab

Soldaten bilakaera Hego Euskal Herrian txosten osoa:

www.mrafundazioa.eus ◀

Plentzia

Aurrekontua, onartuta

Lau milioi euroko

aurrekontua izango du Plentziako Udalak aurten; EH Bilduk eta EAJk horren alde egin dute.

Plentziako Udalak 2017ko aurrekontuak onartu ditu. Gobernu-taldeak (EH Bildu) joan den apirilaren 11n eroan zuen proposamena osoko bilkurara, eta aurrera atera zen EH Bilduren eta EAJren babesagaz; Plentziako Independentek taldea horren aurka agertu zen. Horrenbestez, Udalak 4 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango du urte honetan; kopuru horretatik, milioi bat euro inguru inbertsioetara bideratuko ditu Plentziako Udalak. EH Bilduk azaldu duenez, aurrekontuak negoziatu eta onartzeko prozesua «luzea eta ezohikoa izan da». Modu berean,



Gobernu taldearen ustez kontu «errealistak» dira, diru-mugez jabetuta egindakoak.

«zuhurtzian» oinarritutako aurrekontuak direla aitortu du, «oso errealistak, Udalak dauzkan diru-mugez jabetuta egindakoak». Izan ere, zehaztu duteenez, abiapuntua 343.000 euro gutxiagaz egin dute, Udalkutxari 213.000 euro bueltatu behar dizkiotelako, eta

diru-sarreretan 130.000 euro gutxiago izan dituztelako. EAJk hainbat alegazio egin zizkion EH Bilduk aurkeztutako zirraborroari, inbertsioetara bideratutako saila handitzeko guran, «herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko», bozeramaila jeltzalearen berbetan. ◀

Barrika

Kalte-ordaina eta interesak ordaindu beharko ditu Udalak

Barrikabaso auziari lotutako 1,5 milioi euroko kalte-ordainaren % 50a ordaindu du daborduko Bizkaiko Foru Aldundiak, eta epaia irmoa zela jakinarazi zen egunera arte kalkulaturako legezko interesak ere bai. Hala, bigarren zatia ordaintzea Barrikako Udalarari dagokio: 948.655,42 euro. Horretarako, 8 urteko ordainketa-plana proposatu du EAJk. Apirilaren 5eko osoko bilkuran ordainketa-plan horren nondik norakoak azaldu zituen Gobernu-taldeak. Roberto Muñoz alkatearen aldeko bozkak ahalbidetu zuen ordainketa-planak aurrera egitea. Horren



arabera, 200.000 euroko lehenengo ordainketa bat egitea aurreikusi dute; ostean, hilabetero 5.836,80 euro ordaintzea, 8 urtean zorra kentzeko asmoz. ◀

Sopela

Plaza Beltza kultur gunea martxan da, Larrabasterran

Plaza Beltza kultur guneak eguegan, apirilaren 27an, irekiko ditu ateak, Larrabasterrako Loiola Ander Deuna kalean. Lokal berri horretan kontrakultura sustatu gura dute sopoloztarrek; horretarako, berbaldiak, tailerrak, antzerkiak, kontzertuak eta liburu-aurkezpenak egingo dituzte, besteak beste. Berbarako, eguegan, irekieraren eguegan, gune berriaren aurkezpen-festa egingo dute, 20:00etatik aurrera. Hurrengo eguegan, Nebula Selektah izango da, 23:00etan, doinua ipintzeko eta zapatuan, Voltaia taldearen kontzertua izango da, 21:00etan. ◀

hau hezkuntzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

ARTOLOZAGA
ANAIK
Tailerrak
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarriñe z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tallerartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

BOSCH
Service
Car Service

Uribe Kosta

«Erabakitzea giza eskubidea ere bada»

Maiatzaren 7an, eskualdeko sei herritan erabakitze eskubidearen aldeko galdeketa egingo du Gure Esku Dago herri-ekimenak sortu duen Uribe Kosta Ados taldeak.



Lemoiz, Gorniz, Plentzia, Urduliz, Barrika eta Sopelan egingo du Gure Esku Dago herri-galdeketa.

IKER RINCON MORENO ▶

Uribe Kostako Gure Esku Dago herri-ekimeneko kidea den Imanol Igeregi sopoloz-tarragaz berba egin dugu, bi domeka barru antolatuko duten herri-galdeketa nontik norakoak eta zehaztapenak ezagutzeko.

«Euskal Estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?», zergatik aukeratu duzue galdera hori?

Lan-batzorde batek egindako lanaren ondorioa izan da. Eskualdean sei herri biltzen gara, eta horietako ordezkariak batzen hasi ginen. Galdera horrek herri horien ezaugarriak edo asmo nagusiak ondo barnebiltzen dituela uste dugu; denon adostasuna bilatu genuen.

Zergatik uste duzue beharrezkoa dela Euskal Estatu burujabe bat?

Arrazoi desberdinak daude. Alde batetik, eskubide kolektiboaren kudeaketa dago. Gure Esku Dago mugimendu bezala jaio da herritarren eskubide politikoak defendatzeko; demokrazian sakondu nahi dugu. Beste alde batetik, erabakitze eskubidea norberaren, herritarren, autogobernuaren ondorio naturala da. Horrenbestez, etikoki, ez diogu inori baimena eskatu behar erabaki ahal izateko. Eskubide naturala

da, giza eskubideekin lotutako eskubidea da. Zergatik eskatu behar dira baimenak horrelako urratsak emateko?

Maiatzaren 7an egingo diozue galdera hori Uribe Kostako herritarrei. Zer aurreikuspen duzue?

Aurrera egiteko ditugun baldintzak ikusita, galdeketa egitea soilik izugarritzko pausoa dela uste dugu. Baldin-

«Herri-galdeketa baldintza demokratiko guztiak beteko direlakoan gaude»

tza hauekin martxan jarri eta 2.000, 3.000 edo 4.000 pertsona hurbiltzen badira egun horretan itzela litzateke. Euskal Herrian 800.000 pertsonak bere iritzia emango balute izugarritzko indarra izango genuke. Zein alderdi politikok du horrenbesteko indarririk? Batek ere ez. Erabakitze eskubidea gure artean errotuta dagoela erakutsi nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa da ahalik eta partaidetza zabalena lortzea; eta hori eskatzen dugu. Bide honetan, boto batzuk biltzen ditugun bakoitzean aurrera egiten dugula eta

urrats garrantzitsua dela uste dugu.

Zelan gauzatuko duzue galdeketa?

Konplikatu izango da, egia esan. Talde txiki bat badago lanean hori dena prestatzeko. Gure medioak edo baliabideak erabilia, herriz herri mahaiak jarriko ditugu. Gainera, jada eskualdeko auzokideek bozkatzeko aukera daukate. Egunean bertan, berriz, 09:00etatik 20:00etara egongo da bozka emateko aukera. Hauteskunde arruntekin ahalik eta antz handiena eman nahi diogu galdeketa. Gainera, oso zorrotzak izango gara boto-ematearen kontrola eramaten. Inork ez dezala zalantzan jarri benetan hori dela herri hauetatik parte hartzen dutenen adierazpen librea. Baldintza demokratiko guztiak beteko direlakoan gaude.

Emaitzak herriz herri emango dira?

Bai; erabakitze dago ea prentsaurreko bateratua egitea datuak batu ostean sei herrietan: Sopela, Barrika, Urduliz, Plentzia, Gorniz eta Lemoizen.

Zein izango da hurrengo pausoa?

Ekainaren 10ean adierazpen publikoa egingo du Gure Esku Dago, Bilbon. Bertan, galderak egiteko eta erantzunak emateko hor gaudela adieraziko da. Momentu honetan indarrak piltzen gabilta. ◀

Gorniz

Nazioarteko dantzen erakustaldia egingo dute, zapatuan

Ohiturari jarraituz, apirilaren azkenengo zapatuan ospatuko dute Nazioarteko Dantza Eguna Gornizen. Hala, hilaren 29an, askotariko estilotako dantzen emanaldiz gozatzeko aukera egongo da udalerrian. Egitaraua bi zatitan banatuta dago: bata, eguerdian, eta, bestea, arrastian; hondartzako pasealekuan eta Ibarreta plazan, hurrenez hurren. Lehenengo saioa 12:30ean hasiko da, eta horretan balletz gozatzeko aukera izango dute hondartzako pasealekuraino bertaratuko direnek. Ostera, arrastiko 07:00etan, ballet, street dance edo jazzaren estilok ikusi ahal izango dira. Euskal dantzek ere euren tartea izango dute. ◀

Zarama batzeko ohiturak monitorizatu egingo dituzte

Gornizen abiarazi zuen apiril hasieran Bizkaiko Foru Aldundiak ontziak batzeko hamar edukiontzi monitorizatzeko proba pilotua. Bizkaiko Hirisens enpresa hasiberriak garatutako dispositiboak erabiliko dute horretarako, sei hilabetez. Sentsore horiek hainbat datu batu ahal izango dira, betetze-mailari eta ontziaren tenperaturaren ingurukoak, besteak beste. Modu berean, balizko gorabeheren berri emango du, berbarako suteak, iraultketak, gainezka egotea edo ihesen bat gertatzea. Horiek denak egunero monitorizatuko dira analisi-plataforma batean, eta Garbikerri bidaliko dizkio te astero eta hilabetero. Halere, gorabeheraren bat egotekotan, halakorik jazoko den unean bertan jakinaraziko dute. Gainera, datu horiek web-plataforma baten bidez kontsulta daitezke, eguneko edozein unetan. Sistema horren bitartez, zaramaren batze-ibilbideak ere hobeto daitezke. ◀

Katillukadak txotxongilo-saioa, hilaren 29an

Plentzia eta Gornizko Euskara Agentzaren umeentzako txotxongilo-saioa iragarri du: *Katillukadak*. Horregaz hitzordua apirilaren 29an ipini dute, zapatuan, 18:00etan, Gornizko udaletxeko biltzaile-aretoan. *Katillu* bertsolari ohia da emanaldiko pertsonaia, eta bere lagun txotxongiloak ipuinak kontatzen dabil herriz herri. Denera, 4 ipuin, 4 mezu eta txotxongiloak biziarazteko 4 teknika desberdin erabiltzen ditu. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako astekaria

2017ko apirilaren 27tik maiatzaren 3ra arte



hiruka.eus



ERANDIO
Iaz Martiartun izan bazen ere, 2017ko Kanpomartxo Lutxan izango da.

Lutxana euskal kulturaz eta folklozez jantziko da

Euskarak, kulturak eta Erandiok bat egingo dute apirilaren 30ean, Lutxan, 11:00etatik 20:00etara arte askotariko jarduerak izango dira: goizean, trikitilariak, euskal dantza-taldeak erakustaldiak eta bertso-saioak egongo dira; bazkalostean, kantaguneak eta umeentzako zenbait jarduera antolatuko dituzte. Kuadrillen arteko lehiaketaren ostean, Luhartz taldea-

ren erromeriak amaiera emango dio aurtongo edizioari. Jatorriz, Kanpomartxo ekimena inauterien aurreko domekan egiten zen. Orduan, familiak eta herriko taldeak batu egiten ziren, eta mendira edo landa aldera joan ohi ziren, bazkaldu eta eguna pasatzen zuten. 1994an, Berbots Erandion Euskal elkarrekin ospakizuna berreskuratu eta zaharberritu zuen. Gaur egun,

zenbait helburu dauzka: euskaldunen eta euskaltzaleen bilgune izatea, euskara eta euskaltasuna giro atseginez uzartzea, herriko elkarrekin arteko harreman-sarea sendotzea eta herriko jende askoren agendan sartzea, besteak beste. Berbotsek ekimena berrartu zuenetik, 23 urtean Kanpomartxo Erandioko auzo ezberdinetan antolatuko dute; aurton, Lutxan izango da. ◀

SOPELA ETA BERANGO

Iparraldeko Norman, filma eskainiko dute Sopelan eta Berangon

Sopelako Kurtzio Kultur Etxeak eta Berango Antzokiak *Iparraldeko Norman* animaziozko umeentzako filma proiektatu dute hilaren 30ean, 18:00etan. Norman ehizan ez dakien hartz bat da; baina, pertsonakaz komunikatzeko gaitasuna du. Artikoa salbatzearen, New Yorkeraino joan, eta, ospetsu bihurtuko da, abestien eta kantuen artean. ◀



GORLIZ

Katilkadak lanaz gozatzeko aukera egongo da, zapatuan

Apirilaren 29an, 18:00etan *Katilkadak* emanaldia izango da Gorlizko udalategiko batzar-aretoan. *Katilkak* gidatuko du emanaldia, bertsoen munduan 30 urte daroatzen pertsonaia da bera. Txotxongiloak mugiarazteko lau teknikaz baliatuko da, lau istorioren bidez teknika horiek erakutsiz, bertsoak eta istorio bitxiak kontatuz. ◀

ANTZERKIA

APIRILAK 27, EGUENA

Atte hil aurretik

20:00 | *Azoka zaharra* | Erandio

Behoko Larraine taldeagaz, euskaraz, doan. Antzerki EguEnak ekimenaren barruan.

APIRILAK 29, ZAPATUA

Frida

20:00 | *Josu Murueta kultur etxea* | Erandio

Humberto Roblesen *Frida* ikuskizuna eskainiko du Paco Obregon zuzendariak, gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

APIRILAK 29, ZAPATUA

No os lo vais a creer

AZOKAK

APIRILAREN 27TIK 30ERA ARTE

Liburuak Topaleku

10:00 | *Algortako Geltokia plaza* | Getxo

Getxoko Udal Liburutegiak eta zortzi liburu-dendak antolatutako liburu-azoka. 10:00etatik aurrera askotariko jarduerak, hizkuntzatan eta doakoak.

DEIALDIAK

MAIATZAREN 2TIK 31RA ARTE

2017ko udalekuak

18:30 | *Sopelarin eta Kurtzio kultur etxea* | Larrabastera eta Sopela

Summer Camp, Udaleku Irekiak, Surf Udalekuak

hiruka


Uribe Kostako astekaria



Gehigarri berezia

2017ko
maiatzaren 2tik
maiatzaren 11ra arte

Zure etorkizuna martxan! **Gazteei begirako gehigarria**



Hurrengo orrietan eskualdeko hainbat institutu eta Lanbide Heziketako ikastetxeren eskaintza zabala duzu; batxilergoak, goi- eta erdi-mailako zikloak, beka...



Fadura LHII Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Fadura Ikastetxeak 30 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentzia izatea lortu du.

Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da Fadura LHIIren helburua, jendartean integra daitezkeen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzegaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabalaren ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fa-

dura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hurbil. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrezan erantzunez.

Estrategia eta balioak

Balioetan hezteko Hezkuntza Proiektuaren oinarria, etengabeko harrera

lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da zentroa. Ugaritasuna ikasteko aukera bezala ulertuz, eta dibertsitateari eskaintako arreta da pertsonetikiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, formakuntza-eskaintza zabalagatik, laneko segurtasunagatik eta inguruarekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentzia izateagatik gura dute jendarteak ezagutzea ikastetxea. ◀

A, B eta D ereduak

Hezkuntza-eskaintza:

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Mantentze-lan elektronikoa.
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.
- Haur-hezikuntza.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen sustapena.
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa.

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazio-instalazioak.
- Mekanizazioa.
- Karrozeria.
- Ibilgailu automobilen elektromekanika.
- Erizaintzako laguntzaile.
- Osasun-larrialdiak.
- Eskaintza partziala:
 - Anatomofologia eta oinarriko patologia.
 - Enpresa eta ekimen sortzailea.
 - Lanbide-prestakuntza eta orientazioa.
 - L.P. (F.C.T.)
 - Telelarrialdiak.

Izena emateko jarraibideak

- Online, Idazkaritza Birtualaren bitartez: www.fadura.hezkuntza.net/web/guest/secretaria-virtual
- Idazkaritzan bertan izena eman daiteke. Idazkaritza-ordutegia: 08:30-13:30.



Fadura Ikastetxea

Zure etorkizuna hurbil

**JARDUNALDI IREKIA:
MAIATZAK 10, 18:00ETAN**

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea

Berdintasuna eta Ingurugiro-Iraunkortasun balioetan hezitzaileak

Praktikak atzerrian, Irakasteko metodologia berriak, IKT heldutasuna

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua
Bizkerre zk.g. 48991 - Getxo

Tel: 94 406 90 00 - www.fadura.eus - instituto@fadura.eus



Aixerrota BHI

Aixerrota BHI ikastetxea

Pertsonaren hezkuntza integrala helburu



Aixerrota ikastetxeak irakaskuntza euskalduna eta pedagogia berritzailea izan ditu ezaugarri nagusiak 1983an sortu zenetik. Proiektuak pertsonaren hezkuntza integrala du helburu, zeregin horretan oinarritzko balioak ditu honako hauek: errespetua, askatasuna eta auto-

nomia pertsonala. Euskara da bizikidetzako eta komunikazioko bitarteko nagusia. Gaur egun, ikastetxeak hamaika proiektu martxan ditu, berbarako Agenda 21, IKT, Normalkuntza, Sarehezkuntza eta Eleaniztasunerantz. Zentroa ikastetxe biren bateratzeetik sortu zen: Getxo III (batxilergoa) eta Aixerrota LHI. ◀

Izena emateko bideak:

Online edo ikastetxeko idazkaritzan bertan (Santa Marina Haitza, 14, Getxo). Idazkaritzako ordutegia: 09:00-13:30 / 15:00-16:30 (arrastiko arreta, astelehenetik eguaztenera).

AIXERROTA BHI



BATXILERGOAK

- ZIENTIFIKOA
- GIZARTE ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA: A ETA D EREDUAK

944 911 786

www.aixerrota.hezkuntza.net
015109aa@hezkuntza.net



Erandioko Udalak euskarazko ikasketak sustatzen jarraituko du

Nahidudalako.eus

Zure iritzia ezinbestekoa da guretzat. Sartu www.nahidudalako.eus web gunean, galdetegia bete eta sari zoragarriak irabazi.

- 1.** IPAD mini 4 Wi-Fi, 32 GB
- 2.** GoPro HERO 4 SESSION V.2 ekintza kamera
- 3.** Kirol materiala erosteko 150 €

DBHko 4.mailako ikasleengana heldu gura du Udalak «Nahi dudalako!» kanpainaren bidez, Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneagaz koordinatuta.

Aurreko urteotan legez, aurtore, «Nahi dudalako!» kanpainaren helburu nagusia da DBH euskaraz egin duten gazteek horik aurrerako ikasketak ere euskaraz egitea. Ekimen hori 15 eta 16 urteko gazteei eta euren gurasoei zuzenduta dago. Hala, behar duten informazio dena ematen diete gurasoei zein gazteei: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan dabilzane; aurrerantzean egingo dituzten ikasketetan ere euskarazko eredu (D eredu) aukera dezaten. Informazio dena webgunean ikus daiteke, kanpainaren komunikazio-ardatza ere bada. Bertan gazteek Batxilergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egiteko duten eskaintzaren berri izango dute. Unibertsitateko eskaintzak zeintzuk diren ikusteko aukera ere ematen du webguneak eta, horregaz batera, etorkizunera begira, izan ditzaketen hainbat zalantza argitzeko balioko die. Aurten, Lanbide Heziketak duen garrantzia nabarmendu gura izan dute eta berori euskaraz egiten dabilzan zenbait gazteren testigan-

tzak jaso dira. Gainera, webgunean sartu eta inkestan parte hartuko duten gazteek hainbat sari irabaztea aukeran izango dute, esaterako Ipad mini 4 bat, Gopro hero 4 session v2 ekintza-kamera bat, eta kirol-materiala erosteko 150 euroko opari-txartel bat.

Webguneagaz batera, kanpainaren berri emateko diptikoak banatuko zaizkie kanpaina bultzatu duten Erandioko eta beste 28 udalerritako gazteei. Hala ere, gazteon gurasoek jaso dute daborduko kanpainaren nondik norakoak azaltzen dituen gutuna. Guztira, 6.200 eskuorri banatuko dituzte.

Horregaz batera, gazteentzako hainbat berbaldi ere antolatu dituzte, euskaraz ikastearen garrantzia nabarmentzeko eta kanpainaren webgunean zer aurkituko duten azaltzeko. Ibon Urrutia *El conquistador del fin del mundo* saioko partaide ohiak eman ditu berbaldiak, eta euskarak bere bizimoduan izan duen garrantzia azaldu du; gazteak horren inguruan gogoeta egitera bultzatu ditu. ◀

info+: www.nahidudalako.eus

Uribe Kosta

Uribe Kosta BHI



Uribe Kosta BHI Eleaniztasuna eta sare-hezkuntza, oinarri

Inguru sozialean eta kulturalean sustraiturik dagoen ikastetxea da Uribe Kosta BHI. Bere helburu nagusia da ikasleen zein jendartearen beharrak asetzea.

Uribe Kosta BHI D ereduari, nerabeakaz eta gazteakaz lan egiten duen institutu publikoa da, eskualde osoko ikasleak hartzen dituena. Eleaniztasuna eta sare-hezkuntza dira ikastetxeko proiektuaren oinarriak, eta metodologia kooperatiboa eta parte-hartzailea bultzatzen du. Inguru sozialean eta kulturalean erroturik dago. Ikastetxearen helburu nagusia da ikasleen

zein gizarte orokorraren beharrak asetzea, askotarikotasuna jagotea eta ezberdintasunak orekatzen dituen hezkuntza demokratikoa eskaintzea.

Instalazioak eta zerbitzuak

Uribe Kosta BHIk ikasleen artean teknologia berrien erabilera lehenesten du. Giza baliabide eta ekipamenduei dagokienez, IKTen heldutasun-maila aurreratua duen ikastetxea ere bada.

Institutuaren azpiegitura dagokienez, ikasgelez gainera, liburutegia, 3 informatika-gela eta *chromebook*-gela bat (ikasle bakoitzarentzako ordenagailu pertsonalagaz egokitua dagoen aretoa), gimnasioa eta kirola egiteko patio estalia eta estaligabea dauzka.

Eskolaz kanpoko kultur eta kirol-jardueren eskaintza zabala eta askotarikoa dauka ikastetxeak. Kirolen artean esaterako saskibaloia, eskubaloia eta areto-futboleko klaseak eskaintzen dituzte bertan. Bestelako zerbitzuen artean, ikastetxeak jantoki-zerbitzua eskaintzen du, eta inguruko udalerrietaraino joateko garraio-zerbitzua ere bai. ◀

D ereduari

Hezkuntza- eskaintza:

DBH eta Batxilergoa, Gizarte Zientziak eta Humanistikoa zein Zientifiko-teknologikoa

Eskola-ordutegia

DBH eta Batxilergoan: 08:20-15:10
*Irailan eta ekainean, ordutegia apur bat murrizten da: 08:15-14:30

Zerbitzuak

- Autobusa DBHko ikasleentzat:
 - A linea 7:50 Lemoiz, Armintza
 - B linea 7:55 Mota
 - C linea 7:50 Urduliz BBK, Barrika
 - D linea 7:47 Urdulizko udaletxea, Isuskita (Plentziako Abanikoa)
 - E linea 7:50 Urezarantza, Gortiz
 - F linea 7:50 Andra, Gortiz, Plentzia
- Jantokia DBHko ikasleentzat.
- Liburutegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira: kirolak, hizkuntzak, musika...
- Mota askotariko irteerak antolatzen dira, sasoi bakoitzeko bana.
- Ikasleei zuzendutako orientabide-zerbitzua eskaintzen da.

Izena emateko jarraibideak

- Online edo ikastetxeko idazkaritzan. Ordutegia zehazteko, telefonoz deitu.
- Telefonoa: 946 571 040
- E-maila: uk@uribekostabhi.com



www.uribekostabhi.org



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC.

**DBH: Eleaniztasuna bultzatzen
eta IKTen heldutasun-maila aurreratua**

**Batxilergo: Gizarte Zientziak eta
Humanistikoa zein Zientifiko-teknologikoa**



Gatzamina zk.g. - 48620, Plentzia. Telefonoa: 94.657.10.40 www.uribekostabhi.com - uk@uribekostabhi.com



TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIA, FUTURELAB PROIEKTUA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK EGUNERATZEN

Teknologia berriak gure erreferente bat dira curriculum proposamenak diseinatzeko eta inbertsioak bideratzeko. Iaz hausnarketa bat egin genuen, egoera aztertzeko eta hobetzeko, eta helburu zein proiektu berriak aurkezteko. Batez ere Batxilergoan, hobekuntzak egin genitzakeen, eta horiek eragina izan dezakete Lanbide Heziketako Zikloetan ere. Bagenuen azpiegitura informatiko bat, IKT ikasgaia ematen genuen, eta SareHezkuntza Proiektuan parte hartzen genuen. Baina, Europatik markatuta zetozen Konpetentzia Digitalen garapenean (DIGICOMP) bide berri bat egiteko aukera ikusi genuen, Batxilergo berria diseinatzeko. Kanpoko *input*ek bide garbi bat markatzen zuten; eta DBHn ikasleek konpetentzia horiek lantzen zituzten daborduko. Hala, arlo bi lantzea proposatu genuen. Lehen, Batxilergoko Informazio eta Komunikazio Teknolo-

giako ikasgaian, Lehen eta Bigarren mailetan, curriculumari bultzada sakona emanez segurtasunean, programazioan eta produktu digitalen garapenean (robotak, 3D-ko produktuak, multimediakoak); horiek lantzean, ikasleek gure Lanbide Heziketako familia profesionalak ere ezagutu ditzakete, eta, horretarako gela-proiektuak bideratu genituen. Bigarrena, iraultza txiki bat izan da, irakasleontzat, batez ere; arazoak genituen informatika-gelak libre aurkitzeko, eta konponbidea izan zen lanak euren gelan bertan egitea ikasleek. Sareko konektibitatea ipini genuen geletan, eta hainbatetan gailu digital mugikorren (*tabletak*) erabilera bultzatu: edukiak liburu digitalen bidez edo *online*-plataforman eskainiz. Hala, FutureLab Proiektua urte biko esperimentazio-fasean dago orain; ostean, proiektuaren ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenak egingo dira...



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierrri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierrri.net



Ikastegia ezagutzeko egunak
Apirilaren 25ean, maiatzaren 4an eta ekainaren 8an

Zatoz gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak ezagutzera, arrastiko 18:30etik aurrera

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia Batxilergoa

ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikaria

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikaria
- Produksioa Programatzeko Goi-mailako Teknikaria

- Automatizazioa eta Robotika industrialeko Goi-mailako Teknikaria
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikaria

«Jaurlaritzari eskatzen diot % 5eko igoera bera egitea bere unibertsitatean»

Nekane Balluerka Lasa EHUren errektore hautatu zuten pasa den azaroaren 24an, 10 urtez errektoreorde izan ostean. Kargua urtarrilean jaso zuen; hala, ehun egun baino gehiago daroatza Leioako Errektoretzako aulki nagusian. Portaera Zientzien Metodologian katedraduna da ordiziarra. Gipuzkoatik Leioaraino egunero datorren arren, Bilbon erantzun dio HIRUKAri.



TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Agintaldiko lehenengo ehun egunak gainditu dituzu. Orain artekoari zer deritzozu?

Zentratzen baldin bagara gure egitasmoetan, balantze nahiko ona egiten dut: alde batetik, martxan ipini nahi genuen irakasle berrientzat mentore-programa bat, esperientzia handiko irakasleek gidatutakoa edo nolabait babestutakoa, eta hori martxan ipini dugu. Bestalde, ikerkuntzari dagokionez, zenbait neurri hartu nahi genituen gure deialdietan, jende gaztea ikerketa-taldeko zuzendaritza-lanetan hasteko, eta hori ere egin dugu. Gainera, ikerketa-deialdietan aldaketa dezente egin ditugu, beste zenbait helburu lortze aldera. Automozio Ingeniaritzako titulazioa ere Unibasq-en onartu da, eta martxan ipini dugu irailtik aurrera, formakuntza dualean. Gipuzkoan Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza formakuntza dualean ere martxan ipintzea lortu dugu. Hasi gara ikasleen trebakuntzarako zeharkako gaitasunen katalogo bat diseinatzen eta, alde horretatik, balantzea uste dut nahiko positiboa izan daitekeela; baina oraindik hastapenetan gaude.

Dena positiboa izan da?

Badaude argi-ilunak. Ilunetan, nire ustez, denbora gehiegi eskaini behar izan diogula estra-akademikoa den auzi bati: izan ditugun liskarrei. Jada duela bi urtetik hona, zenbait esperientzia larri izan ditugu. Pentsatzen genuen baretuko zirela, eta aukeraren bat izango genuela elkarrizketa bat izateko ikasle-talde txiki horrekin; baina, uste dut hori ez dugula

lortu oraindik. Zergatik? Liskar horiek ez direlako Euskal Herriko Unibertsitateari bakarrik dagozkion liskarrak, baizik eta gizartean dagoen beste arazo baten isla direla iruditzen zaigulako. Alde horretatik, pentsatzen dugu gizartean kontuak bideratzen doazen neurrian, Euskal Herriko Unibertsitatean ere bideratuko direla. Horiek dira ilunak; besteak, argiak.

“ EHU da euskaraz irakasgai gehien eskaintzen dituen unibertsitatea. Hemen %90etik gora egin daiteke euskaraz ”

Lehenago aipatu dituzu ikerlariak. Tira-birak sortu izan dira kontratu-mota aldatu zelako, obrakoa izatetik praktiketakoa izatera. Aurre-doktoreen kasuan, ematen du arazoa daborduko konpondu dela; bestelakoakaz zer pauso emango duzue?

Arazo hori 2014an sortu zen eta nik ere, zuek bezala, prentsaren bidez jakin izan nuen. Kode-aldaketa bat izan zen, 401etik 420ra. Zorionez, kode-aldaketa hori berriro bere onera etorri da, esan duzun moduan; printzipioz, gu bilduko gara aurre-doktoreekin, baita doktore ondokoekin ere, zein arazo dauden eta baldintzak nola hobe daitezkeen ikusteko. Kontratu

horietako batzuk Ministerioak egiten ditu; beste batzuk, Eusko Jaurlaritzak; eta, beste batzuk, EHUK. EHUK egiten dituenetan, kontuak errazagoak izan daitezke; baina, besteetan, batzuetan, ez dago gure esku, azken batean, legedi batek inposatutako zer-bait delako. Ikus dezagun zein ibilbide duen horrek.

Esan izan duzu unibertsitateko irakasleen gehien-go funtzionario izan behar izatea arazoa dela.

Bai. Bada lege organiko bat eta horrek eskatzen digu funtzionarioen kopurua laboralen zenbatekoa baino handiagoa izatea. Euskal Herriko Unibertsitatean, une honetan oraindik hori horrela da. Baina pentsatzen dut etorkizun ertain batean gure gazte gehienek hautua egingo dutela agregatuen eta laboralen figuren alde; ni orain gazte izango banintz, hautu hori egingo nuke, gure figuraren aldeko hautua. Hortaz, guretzat oso garrantzitsua litzateke proportzio hori ez bete behar izatea; horretarako, lege organikoan aldaketa batzuk emateko beharra dago. Guk eskaera hori egingo dugu.

Funtzionario eta irakasle propioen gaiari jarraituz, irakasle kaleratuen kolektiboak 25 urte bete zituen, pasa den apirilaren 1ean. Uste duzu legealdi honetan arazo hori konponduko duzuela?

Atean egoten diren irakasle horien inguruan hitz egiten ari zara, ezta? Zaila ikusten dut. Nik badakit horietako bi irakaslek bilera bat eskatu digutela; nire irakasle-ikertzaileen errektoreordea beraiekin bildu-



ko da, ikusteko ea aukeraren bat dagoen zerbait egiteko; baina, ez da erraza. Aukera ezberdinak eman dira: batzuk sartu dira Euskal Herriko Unibertsitatean; baina, kanpo geratu direnek ez dute egoki ikusi eskaini zaien aukera hori. Ez dakit hori konpontzeko aukera izango dugun ala ez. Iñaki Goirizelaiak ere ez zuen lortu, eta ez dut uste erraza izango denik, baina, bilduko gara haiekin eta aztertuko dugu azia.

Goiriena errektoreak eta irakasle kaleratuek sinatu zuten akordioa defendatu zenuen (1992-1993), gero Gobernu Kontseiluak atzera bota zuena. Horren alde egin nuen, bai.

Liskarren inguruan, zer egin behar du EHUK?

Saiatu gara ikasle hauekin biltzen. Izan ere, Ingeniaritza Eskolako liskarra gertatu zenean, saiatu ginen Zuzendaritzarekin adosten ikasle-kopuru batek gaua pasatzeko aukera izan zezan, nahiz eta gure kompetentzia ez izan, zuzendariak erabakitzen baitu horrelakoetan, ez errektoreak. Lortu genuen 50 ikasle baimen hori izatea; baina, gero 200dik gora izan ziren; segurtasun-kontuengatik ezin dira 200 pertsona eskola horretan gaua pasatzen gelditu. Hor bonbonak daude, zenbait laborategi arriskutsuak izan daitezkeenak, pertsona asko hortik baldin badabilta. Hortaz, ez genuen lortu. Aurrera begira, ikusten dudana bide bakarra da hitz egitea eta jasotzea ikasle horien errebindikazioak; baina, ikasle hauek esaten dute: «berdin da dena euskalduntzea, ez zaigu

gustatzen». Hortaz, «EHU ezin da aldatu, EHU suntsitu beharra dago». Lehengo urteko Bilboko txosnetan ere agertu zen: «EHU sutara, EHU suntsitu». Nik beraien bozeramaile bati hori esaten entzun nion, EHUn ezin dela ezer aldatu, EHU suntsitzeko beharra dagoela. Horren aurrean, guk ez dakigu zer egin, oso zaila gertatzen zaigu. Oso kezkatuta nago horrekin.

“ Denbora gehiegi eskaini behar izan diogu estra-akademikoa den auzi bati: izan ditugun liskarrei ”

EAEko aurrekontuak hobe zitezkeela esan duzu, EHUri ekarpen handiagoa eginez. Zeintzuk dira unibertsitateak eskatzen dituen diru-partidak?

Eusko Jaurlaritzak berrikuntzan eta ikerkuntzan %5eko igoera egiteko asmoa baldin badauka hurrengo urteetan, nik eskatzen dudana da, gutxienez, igoera hori egitea ere bere unibertsitate publikoan, formakuntzan, ikerkuntzan eta transferentzian, agintaldian zehar. Zertarako? Bada, alde batetik, formakuntzarako; irakasleriaren euskalduntzea oraindik egiteke dago zenbait titulazioetan. Ikerkuntzari dagokionez, dirua behar dugu gazteen kontratuak man-

tentzeko batez ere, eta ikerketak gazteen kontratuak behar ditu; ekipamenduetan inbertitzeko ere bai, baina, nik funtsean ikerkuntzako inbertsioak pertsonetan ikusten ditut. Erizaintza eta Medikuntzan fakultate berri bat behar dugu, orain daukaguna ez baitago baldintza egokietan; eta transferentziako zenbait ekimen aurrera eramateko ere baliabide gehiago beharko genuke. Horietara bideratuko genuke dirua.

Noizko espero duzu Medikuntza Leioatik jaistea?

Ez dakit agintaldi honetan ikusiko dudana; baina, gustatuko litzaidake horren ziurtasuna izatea behintzat. Edo lizitazioa edo lehenengo fase bat behintzat aurrera eramatea. Ikusi beharko genuke titulazio guztiak Bilbora ekar daitezkeen edo ez, bai nahiko nuke atzeraezineko urrats bat ematea.

EHUK eta Eusko Legebiltzarrak sarri eskatu dute Espainiako espetxeetan dauden euskal presoek EHUn ikasi ahal izatea, lehen bezala. Uste duzu armagabetzearen ostean, Espetxeetako Zuzendaritzagaz gai hori mugitzeko aukera egongo dela?

Itxaropen hori daukat. Guk eskaera egin dugu jadanik; baina, oraindik, *stand-by* egoeran dago, eta ez dakigu zein izango den erantzuna. Beti esaten dut birgizarteratzeko modurik egokiena dela espetxean dagoen pertsonak bere hezkuntza hobetu ahal izatea; eta Frantzian ez dugu inolako arazorik, ondo funtzionatzen dute gure titulazioek; eta, nire ustez, gure ikasleak ere gustura daude. Ez dut ulertzen zergatik Espainian espetxean dauden pertsonak ezin dezaketen aukera bera izan. Ni itxaropentsu nago; ikusiko dugu... Aurreko agintaldian, aurreko errektoreak ez zuen lortu, eta eskaera egin ere egin zuen, behin baino gehiagotan.

Denboran nahiko hurbil jazo dira zu errektore hautatzea, Marta Macho irakasleak Emakunderen Berdintasun Saria jasotzea eta Micaela Portilla gunea zabaldu izana. Horrek harrotu egiten zaitu?

Bai, noski! Niretzat harro egoteko modukoak dira gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde ematen diren urrats guztiak. Guk berdintasunari begirako hirugarren plana egingo dugu, unibertsitatean berdintasuna benetan bultzatzeko. Bestalde, ni errektore izateari dagokionez, ilusio gehien egiten didana da emakumea izatea.

Euskalduntze-plana ere martxan daukazu. Medikuntzan izaten dira protesta gehienak.

Hor esan nahi dut EHU dela euskaraz irakasgai gehien eskaintzen dituen unibertsitatea, %90etik gora egin daiteke euskaraz. Badauzkagu oraindik 14 gradu ezin direnak osorik euskaraz egin; eta horietatik erdian, hiru nahitaezko ikasgai bakarrik falta zaizkigu osorik euskalduntzeko. Gure asmoa da, noski, gradu horietan nahitaezko ikasgaiak euskaraz eskaintzea. Medikuntza da esparrurik zailena. Bertan gure esku daude lehenengo 3 urteak, ikasketa aurreklinikoak deritzenak, eta hor dena euskaraz egin daiteke. Zer gertatzen da ospitaleetan? Bada, espezialitate batzuetan medikuek ez dakitela euskaraz. Hor dauden medikuak dira dauzkagun medikuak, ezin da irakasle bat bidali. Hor egin dezakegun kontu bakarra da postu elebidunak ateratzea lanpostu berriak ateratzen ditugunean; hori da gure politika, oso argi daukagu, Goirizelaiak argi izan duen bezala. ◀

argi
hizki
ak²⁰¹⁷

argi



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN VI. LEHIAKETA
Maiatzaren 2tik 31ra

Maila bi: 16-18 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena

Atal bi: **Testu labur-laburrena** (160 karaktere, gehienez) eta **laburrena** (100 berba, gehienez).

Testuak webgunearen bitartez helaraztea beharrezkoa da.

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA ARGAZKIAK IKUSTEKO:

www.argihizkiak.eus



BARRIKA

Irakurketa-kluba, umeei begirakoa

Liburuaren Eguna izan dela eta, Irakurketa-kluba batuko da Barrrikako Udal liburutegian, apirilaren 28an, barrikuan. Txanda bi egongo dira: 3 eta 4 urteko neska-mutilentzat (17:30-18:30), eta 5 eta 7 urte bitartekoentzat (18:30-19:30). ◀

BERANGO

XXI. mendeko magia, Berango Antzokian

Carlos magoak adin guztiarentzako entretenimendua ekarriko du Berango Antzokiko besaulkietaraino, apirilaren 29an, arrastiko 07:00etan. Ikuskizuna gaztelaniaz izango da, eta sarrerak 3 euroan egongo dira salmentan. ◀

URDULIZ

Maribel Salasen umore-bakarriketa

Urduliz Umore Gauak ekimenaren barruan, Maribel Salas aktoreak *No os lo vais a creer* bakarriketa eskainiko du, hilaren 29an, zapatuan, kultur etxean. *Vaya Semanito*ko aktorearen umorezko satorako sarrerak 6 euroan daude. ◀

NO OS LO VAIS A CREER

21:00 | Urdulizko kultur etxea | Urduliz
Maribel Salas aktorearen bakarriketa, Urduliz Umore Gauak programaren barruan. 16 urtetik goragokoei begirakoa. Sarrera: 6 euro.

APIRILAK 30, ZAPATUA

Kontukantari

18:00 | Andrés Isasi musika-eskola | Areeta
Familia osorentzako ume-antzerkia, euskara hutsean. Sarrera: 5 euro.

BERBALDIAK

APIRILAK 27, EGUENA

Parkean ere euskaraz

16:45 | Mendiguren plaza | Erandio
Ignacio Aldekoa guraso-elkarrearen ekimen horren helburua da gurasoak eta seme-alabak parkean batu eta euskaraz berba egitea.

BERTSOLARITZA

APIRILAK 29, ZAPATUA

Katillukadak

18:00 | Udaletxeko bilkura-aretoa | Gortiz
Lau ipuin kontatuko dituzte, bakoitza txotxongiloak maneiatzeko teknika bategaz, familiagaz ikusteko gomendagarriak.

DANTZA

APIRILAK 29, ZAPATUA

Libertino

21:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Vargas & Brülé talde andaluziarraz (Marco Vargas eta Chloé Brülé bikoteak osatutakoa). Sarrera: 7,5-15 euro.

Nazioarteko Dantza Eguna

12:00 | Algorta, Leioa, Gortiz eta Erandio
Lekuko dantza-eskolen, profesionalen eta bestelako dantzarien ikuskizumak, dantza garaikideko estilo ezberdinen saioak eskainiz.

ERAKUSKETAK

APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 30ERA ARTE

Lan grafikoa

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Itsaso Manzano eta Arantza Arzuaren teknika askotariko erakusketa.

MAIATZAREN 19 RA ARTE

Arrantzaleak

La Estación kafetegia (Neguri) | Getxo
José Fernández Moránek arrantzaleei egindako omenaldia da *Arrantzaleak*, historian izandako arazoak jasozten dituen. Koadroez gainera, marrazkiak eta grabatuak ikus daitezke.

eta *Muskaz Biri* udalekuetan izena emateko epea zabaldu da. Astelehenetik barrikura, 09:00etatik 13:30era arte. Informazio gehiago: sopela.eus eta musika.eskola@sopela.eus

KIROLAK

APIRILAK 30, DOMEKA

III. Orientazio-proba

10:00 | Udaletxeko plaza | Sopela
Bidea Orientazio Klubak probaren hirugarren edizioa antolatu du. Informazioa: cobidea.com
Prezioa: 6 euro.

MUSIKA

APIRILAK 27, EGUENA

Moni & CO

20:00 | Jolasaurre (Algorta) | Getxo
Getxon Zuzenean programak Moni & CO pop-taldearen kontzertua eskainiko du. Doan.

APIRILAK 28, BARIKUA

Kantujira

21:00 | Eleiz enparantza | Plentzia
Kantagune elkarrekin kantujira egingo du. Hasiera Eleiz enparantzan izango da.

APIRILAK 29, ZAPATUA

Alfredo Rodriguez Trío

20:00 | Andrés Isasi musika-eskola | Areeta
Pío Lindegaarden omenezko kontzertua, Tocaroro lan berria aurkeztuko du hirukoteak. Sarrerak: 12 euro.

TXANGOAK

APIRILAREN 29TIK MAIATZAREN 1ERA ARTE

Asteburua, Baztanen

Erandio

Erandioko Mendigoizaleak elkarrekin Iparlako igoera (Nafarroa Behera: 1.403 m) eta bestelako ibilbideak antolatu ditu. Informazioa eta izen-ematea: 620 170 788.

ZINEMA

APIRILAK 28, BARIKUA

Sparrows

21:00 | Andrés Isasi musika-eskola | Areeta
Rúnar Rúnarsson-en filma emango dute, eta gero, eztabaida egingo da. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

APIRILAK 28, BARIKUA

Zineforuma

17:00 | Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Astrabuduko emakumeen elkarrekin zineforuma antolatu du.



Idiot Txou antzezlaneko aktoreak, saio batean. © ADOS TEATRO

Idiot Txou, publikoagaz jolasean

Garbi Losadak zuzendutako antzezlanak gaurkotetasunaren azterketa egiten du umoreaz baliatuz, eta irratiko esatari-entzuleen harremana antzerkiko ikusleakaz eszenaratuz. Gidoiaren egiturak gaurkotetasun-albisteak sartzea ahalbidetzen du, inprobisazioaren bidez. Adin guztiarentzako obra da.

Noiz: Apirilak 28, barrikua.

Ordua: 20:00

Non: Kurtzio kultur etxea, Sopela.

Sarrera: 6 euro.

1

Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Dantza estilo ugari ikusi ahal izango dira Nazioarteko Dantza Egunean. © VARGAS & BRÛLÉ

Apirilaren 29an, zapatua

Getxo

12:00

Dantza-eskola irekia eta koreografiatua, Algortako San Nikolas plazan.

19:30

Dantzaldia, Algortako San Nikolas plazan.

Erandio

12:30

Askotariko dantza-estiloen erakustaldia, metroko zabalgunean.

Leioa

21:00

Libertino dantza-ikuskitzuna, Vargas & Brûlé taldeagaz, Kultur Leioan. Sarrera: 7,5-15 euro.

Gorliz

18:00

Mota askotariko dantza-saioak egingo dituzte Ibarreta plazan.

Nazioarteko Dantza Eguna

Leioan, Erandion, Getxon eta Gorlizen ikuskizun ugari eskainiko dituzte Nazioarteko Dantza Egunaren harira.

Dantzak Uribe Kostako hainbat herri elkartuko ditu Nazioarteko Dantza Egunean, apirilaren 29an. Leioan, Erandion, Getxon eta Gorliz en eta dantza-giroa izango da. Kultur Leioak

dantza, kantua eta poesiaren askatasunaren inguruko ikuskizuna eskainiko du: Andaluziako Vargas & Brûlé dantza-taldearen *Libertino* obra, hain zuzen ere, 21:00etan (sarrera: 7,5-15 euro). Erandion, Dantzaizu taldeak dan-

tza-saioa antolatuko du, 12:30ean, metroko zabalgunean (Altzaga); euskal dantzak, dantza garaikidea, klasiko, neoklasikoa eta baita hip-hop-a lantzen duten dantzariak izango dira. «Ekitaldi osoan koreografia-munduari ekarpen izugarria egin dion Tisha Browni omenaldia egingo zaio», azaldu dute Dantzaizuko taldekideek.

Algortan dantza garaikidea izango

da nagusi, modalitate horretako estilo ezberdinen ikuskizunak eskainiko dituzte eta. Gainera, San Nikolas plazan dantza-eskola irekia eta koreografiatua egongo da 12:00etan; eta dantzaldia, 19:30ean, doan.

Gorlizek ere hilaren 29an egingo du Nazioarteko Dantza Eguna. Ibarretako plazan estilo askotariko dantzak ikusi ahal izango dira, arrastiko 06:00etan. ◀

Hitza emanda ▶

Kanpomartxo

Martxoa igaro zen apirilez, beraz inguratu lagunez, giroaz, euskeraz: zatoz KANPOMARTXOra gozatu aukeraz, barneko MARTXOsoa KANPOra ateraz!



IMANOL URIBI ALBIZURI
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Getxoko 41. Jazzaldian 17 saio izango dira

Chucho Valdés, Bill Evans eta Dean Brown, Andrzej Olejniczak, Pharoah Sanders (John Abercrombieren ordez) eta Dianne Reeves musikariek Getxoko 41. Jazzaldian joko dutela baieztatu dute. Guztira, 17 saio eskainiko ditu aurtengo jaialdiak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitartean. Andrzej Olejniczakek hasiera emango dio Jazzaldiari, hilaren 28an; 1984tik Bilbon bizi den saxo-joleak 60 disko baino gehiago kaleratu ditu. Getxon, *Interpretando a Chopin* joko dute Olejniczakek, Michal Tokaj pianistak, Michal Baranski baxuak eta Jim Doxas bateriak. Ekainaren 30ean Bill Evans saxo-jolearen txanda izango da, alboan izango ditu Dean Brown gitarrak, Keith Carlock bateria eta Etienne Mbappe baxu-jolea. 80ko hamarkadan Miles Davis egaz lan egin-dakoa da Evans, eta John McLaughlin, Mahavishnu Orchestra eta Herbie Hancock bezalako nazioarteko musikaria-



Reeves. © GETXOKO NAZIOARTEKO JAZZALDIA

kaz ere jardun izan du. Jazz eszenako abeslari esanguratsua den Dianne Reeves ere Getxon izango da, uztailaren 1ean. Detroitkoak bost Grammy ditu, eta Wynton Marsalis eta Chicagoko Orkestra Sinfonikoan aritu da. Azken egunean, Kubatik Bihotz Alai plazaraino helduko da Chucho Valdés, munduko piano-jole onenetariko jazz afro-kubatarrean. Zortzi Grammy irabazi zituen gaztea zela; gaur egun berbaldiak eta ikastaroak ere ematen ditu. ◀

Iris Teatrok Frida Kahloren esentzia berpiztu eta Astrabuduan ikusgai, hilaren 29an

Humberto Roblesen *Frida* ikuskizuna ikusteko aukera izango da apirilaren 29an, Astrabuduko Josu Murruta Kultur Etxean. Antzerki-lana Iris Teatro taldeak taularatuko du, Paco Obregón durangarrak zuzenduko du eta Rosa Martínez-Acocer eta Fran Lasuen aktoreek antzeztuko dute.

Frida Kahloren jai handia du berbabide 65 minutu irauten duen antzeztan; margolari mexikarraren bizitzaren gaineko jai handiaz dihardu, hain zuzen ere. Jai horretan emakumea ez ezik, alkohola, musika, oroitzapenak, maitasunak, idealak, utopiak eta porrotak ageri dira. «Gauza gutxi behar ditut, eta behar ditudan gutxi horiek oso gutxi behar ditut», esan zuen Obregón zuzendariak, Asisko San Frantziskoren esaldi baten bidez, pasa den urtean antzeztana estreinatu zenean. Astrabuduko saioa 20:00etan izango da, gaztelaniaz. Sarrera 3 euroan egongo da salmentan. ◀

«Metal-musika gustuko dugu eta egiten duguna ez dugu aldatuko»

Late To Scream taldea zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera egongo da barikuan, Santurtziko La Kelo Gaztetxearen 18. urteurrenean, apirilaren 28an.

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO**

Metalaren iluntasunean legez, Urdulizko ospitale desertuaren itzaltasunean topo egin genuen mundu-mailan zeresana izango duten Late To Screameko taldekideek eta bostok. Urdulizko, Plentziako eta Gorlizko 18 urteko kideek osatzen duten laukote honek 100 kontzertu inguru eskaini ditu daborduko; euren gaitasunez ohartu dira estatu-mailako jaialdi ezagunak ere, Download (Madril) eta Resurrection Fest (Galizia), adibidez.

Zeuen burua aurkeztu: nongoak zarete? Zelan sortu zen taldea?

Anton: Uribe Kostako Oier (bateria), Guille (baxua), Niko (abeslari eta gitarra) eta Anton (gitarra) gara. Gure musika definitu behar izatekotan, metaletik hurbil dagoen musika-estiloa delako esango genuke. Taldea sortzeko ideia 2013ko uztailean sortu zen; Nikok eta biok irratsaio batean gitarra jo genuen, nire lagun baten aitak ikusi gintuen eta talde bat osatu beharko genukeela esan zigun. Nikok esan zidan jada talde bat bazuela, eta baxujole bat bilatzen ari zirela, eta nahiz eta ni gitarra-jolea izan, ia probatu nahi nuen galdetu zidan; horrela hasi zen dena... Hiru hasi ginen eta hurrengo urtean Guille sartu zen. Gure arteko harremana institutu garaikoa da; gainera, gutako batzuek Arkoten arraun egin izan dugu elkarrekin.

Oso gazteak zarete hain maila ona

izateko. Txikitari musika ikasi zenuen ala autodidaktak zarete?

Anton: Denok jaso izan ditugu musika-eskolak noizbait, eta Oierrek eta Guillek oraindik horretan jarraitzen dute. Nikok eta biok, berriz, urteak daramatzaguz autodidaktak izaten.

Reggaetonaren, elektronikoaren eta indiaren garaiotan, metalaren munduan zelan? Hardcoreagaz gertatzen dabilen legez, metala ere modan ipintzen dabilela uste duzue?

Anton: Nik rocka entzuten nuen beti, eta Nikok behin metala entzunarazi zidan; momentu horretan pentsatu nuen nik sortu eta jo nahi nuena musika-mota hori zela.

Oier: Besteok ere metala gustuko dugu, eta ez dugu aldatuko egiten duguna.

Anton: Jendeak pentsatzen du hardcorea eta metala berdina direla, orduan, horregatik ematen du talde berriri asko daudela eta mugimendu asko dagoela, baina metalean ez dago mugimendu handirik. Nire ustez Euskal Herrian egoera txarra da, eta estatu-mailan ere bai. Metal-talde erreferenterik ez dago.

Talde gaztea izanda, zelan ikusten duzue entseatzeko eta kontzertuak emateko dauden aukerak?

Oier: Kontzertuak emateko aukerak nahiko ondo, 2015ean 2 edo 3 hilabeteetan 25 kontzertu eman genituen. Bilatuz gero, erraza da, baina mugitzea beharrezkoa da. Entseatzeko, berriz, arazo handiak ditugu, entseatzeko lo-



Oierrek, Guillek, Nikok eta Antonek osatzen dute taldea. © LATE TO SCREAM

kal bat ordaindu behar dugu, 100 euro hilabetean; lau pertsonako talde barentzat, gazteak izanda, ez da erraza. Ez dugu lan egiten eta gurasoen pagarekin justu ibiltzen gara ordaintzeko.

Download eta Resurrection Fest jaialdietan talde ezagunakaz jotzera gonbidatu zaituztete.

Anton: Hori guztia gure publizistari (laguntzaile) zor diogu. Download-eko institutuko fisika-klasean nengoela jaso nuen, eta asko poztu ginen! Hasieran ez genuen sinistu, broma bat zela pentsatu genuen, kar, kar, kar... Bestalde, Resurrection-eko, pasa den urtean gure publizista bertara joan zen eta eraman zituen maketatu gabeko 50 kopia, kartoizko kaxetan. Bertako *backstage*an botata utzi zituen, han jendeak hartzeko, eta kasualitatez Ha-

tebreed taldeko Jamey Jasta abeslariak bat hartu zuen eta bere *podcast*-ra gure abesti bat igotzen, bide batez gutaz hitz eginez. Eta, batez ere, horregatik izan da.

Bideoklip berria sortu duzue, oso itxura onekoa. Nogaz grabatu duzue? Danontzat gaztetxean grabatutakoa da, ezta? Zelako harremana daukazu gaztetxeen munduagaz?

Humberto Rodríguez mexikarrarekin grabatu dugu. Leku ilun bat behar genuen, non gu bakarrik egon ahal ginen, eta gaztetxean egitea pentsatu genuen. Harreman ona daukagu Plentzia eta Gorlizko gaztetxearekin, lehen bertan entseatzeko genuen eta. Gaztetxeekin, orokorrean, harreman ona daukagu; La Keloekin, adibidez.

info+: Facebook: Latetoscream

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84



Garazi Sánchez, Alazne Aurrekoetxea eta Aketza Sánchez dira ekimenagaz bat egin duten kirolarietako batzuk. © GETXOKO UDALA

Guatemalan laguntzeko elkartasun-ekimena egingo dute domekan, Algortako Fadurako kiroldegian, igeriketa eta ur-kirolen zale den-denei zuzendutakoa izango da.

Fadurakoa Ur Basque People ekimen solidarioaren bigarren ekitaldia izango da; pasa den otsailaren 20an, Plentzian egin zuten lehenengoa, Kios irlan dauden errefuxiatuei laguntzeko.

Hala, Faduran batuko den dirua Guatemalako El Reposo udalerriko osasun-zentroan behar duten medikuntza-materiala erosteko bideratuko

du Medicus Mundi GKEak. Itziar Irazabal Medicus Mundiko ordezkariak gogorazi duenez, «herrialde horietan osasun publikoa ez da bazter guztietara iristen. Proiektu txikia da bultzatzen ari garena, 6.000 bat eurokoa, El Reposoko bizilagunen beharrak urtebetez asetzeko, ez dezaten egin 46 kilometroko bidea txerto bat ipintzeko». Modu berean, premia-premiazko elika-

gaiak ere batuko dituzte, Sortarazi elkartearentzat, hilaren 30ean, Getxon.

Fadurako 25 metroko igerilekuan egingo dute topaketa, 10:00etatik 14:00etara, eta modalitateak honako hauek izango dira: 100 metroko erreleboetan, familian (beti ere kide bakoitzak gutxienez 25 metro igeri egiten baditu); eta igeriketa jarraituan (parte-hartzaile bakoitzak egindako

distantzia ekimenak iraungo duen 4 orduan 200 kilometro lortzeko helburu bateratuari gehituko zaio). Modalitate batean zein bestean parte hartzeko, pertsonako 10 euroko dohaintza egiteko beharra dago (14 urtetik beharagoek doan parte hartu ahal izango dute). Behin diru-sarrera eginda, frogagiria posta elektronikoz bidaltzea beharrezkoa da. Gainera, Medicus Mundiren kontuan 'o kalea' zabaldu dute, igeri egin barik dirua eman gura dutenentzat. ◀

info+: elkartasuna@urbasquepeople.eus

Bizkaiko Zubiko Maratoi Erdia domekan izango da

Datorren apirilaren 30ean, domekan, Bizkaiko Zubiaren Maratoi Erdiaren laugarren edizioa egingo dute, 10:30etik aurrera. Herri-lasterketa izaera dauka probak eta Getxo eta Portugalete herriak lotzen ditu, 21.097 metroko ibilbide baten bidez. Lasterketa Bizkaiko Atletismo Federazioak

antolatzen du, Bilboko, Portugaleteko eta Getxoko udalen laguntzagaz. Aurten, korrikaldia Bizkaia Zubiaren plazatik aterako da, Portugaleteko Canilla pasealekuan amaitzeko. Patinen gaineko kirolariak 10:30ean irtengo dira, eta korrikalariak ordu laurden bat beranduago. ◀

Sakoneta gimnastika-taldea, Bizkaian nagusi

Oinarririkirolean egindako lana pasa den apirilaren 10ean saritu zuen Foru Aldundiak, Bizkaia Kirolak sarien bitartez. Talde-kirolean, lehen mailako Sakoneta gimnastika-taldea jaso zuen saria, «izugarri ondo» jardun duelako parte hartu duen lehiaketetan. Euskadiko Txapelketan lehe-

nak izan ziren, eta Taldeen Txapelketa Nazionalan, ostera, laugarren geratu ziren. Unai Rementeria Bizkaiko ahal-dun nagusiak azaldu zuenez, «kirolariok egiten duzuen ahalegina aitortu gura dugu, eskertu, eta aurrera begira ere kirola egiten segi dezazuen bultzatu gura dugu», kirol-sarien bidez. ◀

Eiser Hirumet taldea nazioartean lehiatuko da

Ekainean eta uztailean, Europatik ibiliko dira Eiser Hirumet txirindularitza-taldeko kideak. Punta Galea eta Duranguesa txirindularitza-elkarteek osatutako talde horrek bere kirolarien formakuntza bultzatu gura du, zenbait txirindularitza-estilo ezagutu ditzaten. Ekainaren 10ean eta 11n, Frantziako Beaujeulais Tour entzu-

tetsuan parte hartuko dute Eiser Hirumet taldeko txirindulariek, Rhone-Alpes eskualdean, Suitzako eta Italiako mugaren ondoan. Nazioarteko bigarren hitzordua Ingalaterrako iparraldean izango dute, uztailean; Newcastleko Reservoir tourrean parte hartuko dute. Azkenik, uztail amaieran, hiru klasikatan lehiatuko dira Flandrian. ◀



Kirolaz beste

IÑAKI ETXEGIA MARDARAS
Kirolaria

Moden eta ezagutza ezen ausardia

Kalean, kontaktu-kirolen inguruko ezagutza erakutsi nahi duen hasiberri asko dagoela esan daiteke. Betidanik egon dira kontaktu-kirolak gure artean, baina ez dira gizartean orain bezain baloratuak izan. Hala ere, kirolarien eta jendearen arteko harremana asko aldatu da. Azken boladan, gau giroan gehien bat, inoiz ikusi ez den kirolari hauenganako hurbiltasuna eta miresmena agertu da. Betidanik futbolzalea izan dena zure iritzia zalantzan jarriz, AMMei (Arte Martzial Mistoak) buruzko ezagutza okerrak taberna osoari erakutsi nahian. Aspaldi izan da kirol hauetan ibilitako jendea inori ezer demostratu gabe. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

SARIA

Apirileko saria

Bi laguntzako bazkaria Sopelako Urgitxieta jatetxean

Urgitxieta jatetxearen ekimenez, hilabete honetako sari hau zozkatuko dugu HIRUKALAGUN eta bazkide guztien artean. Parte hartu apirilaren 30a baino lehenago.

Zozketan parte hartzeko, apirilaren 30a (domeka) baino lehenago, bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Sudokua

		9						2
		2	1				4	
6	4					1	9	
						8	6	
3			7					
	5				1	3		
	2		9	7		5		
7		3			2			
5			6		8			

Gogoan eduki 1etik gra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

7	8	2	8	7	9	1	6	5
6	9	7	2	1	5	3	8	4
8	1	5	3	7	6	9	2	4
4	2	3	1	9	8	7	5	6
1	5	6	4	2	7	8	9	3
9	8	7	5	6	3	4	1	2
3	6	1	7	8	2	5	4	9
5	4	9	6	3	1	2	7	8
2	7	8	9	5	4	6	3	1

+ Guardiako farmaziak, maiatzaren 3ra arte

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Aitz Gane kalea, 1. 946 680 153. Martitzenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik eguazteneko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

GARCIA. José Luis Goioaga et., 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre pl., 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00; astelehenean, 09:00-22:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Astelehenean, 09:00-13:30.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. J. B. Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

GARDE. Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052. Martitzenean, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan (astelehenean izan ezik) eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

MOLINA. Adiskidetasuna, 13. AREETA. 944 636 246. Domekan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan (astelehenean izan ezik) eta zapatuan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan (astelehenean izan ezik) eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Zapatuan eta martitzenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Domekan eta eguaztenean, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Barikuan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Barikuko 09:00etatik zapatuko 13:45era arte.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Eguenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-13:30.

ERAZO. Loiola Ander Deuna, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan (astelehenean izan ezik), 09:00-22:00.

APIRILAREN 30a, domeka KANPOMARTXO2017 LUTXANAN(ERANDIO)

- 11:00. Hasieta. Trikitilariak
- 12:00. Euskal dantza taldeen emanaldia
- 13:30. Bertso saioa (Itxaso Paya eta Anjel Mari Penagarikano)
- 15:00. Bazkaltzeko tartea
- 16:00. Bazkalosteko Kantagunea
- 16:00. Umeentzako herri kirolak
- 17:30. Umeentzako erromeria: Xilipurdi
- 18:30. Koadrilen arteko lehiaketa
- 20:00. Erromeria "Luhartz" taldearekin

... eta egunean zehar:
**Umeentzako puzgarriak,
arku jaurtiketa, jokoak, sorpresak...**
Txosna, musika, taloa.

AUTO BARIK HOBETO!
ERABILI ERANDIOBUSA

Antolatzailea:
BERBOTS
Erandioko
Euskaltzaleen
Topagunea



Laguntzaileak:
Goi-Aide, Trabudu eta Uztargi
dantza taldeak
Gazte Asanblada
Kantagunea
Musika Eskolako trikitilari
eta pandero joleak
ALBE
Lutcanako auzokide elkarte
Lutcana Arraun Elkarte
Kiirikirxu gaztetxoak

Plataforma Tirante
Keli
Ikastetxeetako
guraso elkarteak
Mendibarte abesbatza
GARABIAK
TATTOO & ORNINA
... eta beste hainbat


Babesleak:
Erandio
Elizateko
Udala
E!
Erandio
RFA
RFA
RFA

HIRUKIRA OLGETAN

SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda



Maripurtzil eta Pelloziri sukaldari

- 1 Fruta eta barazki ugari ikusten da hemen, baina badago limoirik? 2 eta porrurik? 3 Zenbat gerezi ikusten dituzu? 4 Badago ur botilarik?



Marmelada egiteko oinarri-oinarrizkoak fruta, azukrea eta ura dira. Erreparatu marrazkian dauden fruta guztiei eta esan: hemen dituzun potu hauetatik zein ezin izango genuke bete?

Pareak egin Lotu sukalde-tresna bakoitzari dagokion produktua




Ezetz asmatu Osatu esaera zaharra:

A ZER PAREA...



Dominoa

Marraztu falta diren irudiak, domino-jolas hau zuzena izan dadin.



Komunera

Pelloziri txizagurak iratzarri du gauerdian. Lagun egiozu komunera ahalik eta arinen heltzen, bestela hoztu egingo da eta. Oinetakoak dituzten laukietatik besterik ezin da pasatu.



ARROTZA

Hauen artean bada elementu bat gainerakoakaz bat ez datorrena, zein da?



MARGOTU

Kameleoiek aldaratearen arabera aldatzen ei dute larruaren kolorea, normalean. Ostera, honako honek gordetzeko egingo du. Inguruko koloreak hartuz, kamuflatu egingo da. Zer itxura hartuko du? Margo egizu.



Lehiaketa: Non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

SARIA 2 liburu zozkatuko ditugu



«ARBI eta Drako herensugea» eta «ARBI eta altxorraren kutxa» lanen bi ale dauzkagu, hirukalagun txikientzat zozketan artean zozkatzeko.

Liburuak gura badituzu, maiatzaren 4a baino lehenago helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Flashback

Ezkontza-eguna, Sopelan, 1956-57

Orain dela 60 urte baino gehiago egindako ezkontza-argazkia da. Sopelako lehengo San Pedro eliza aurrean daude ezkonberriak: 20 urte inguruko herriko neskatza gazte Ana Mari Gorostola eta Juan Pardo, Almeriatik Sopelara beharrera etorritakoa, eta ezkontzeko aurreko ogibidea utzi zuena. Iturralde baserriko alaba da Gorostola, eta etxeako ezkontzarako jantzita zeuden (mantelina buruan batzuek); gainontzekoak, kalez jantzita, bere joste-taldeko lagunak ziren, sopeloztarrak eta urduliztarrak, irakaslea ere bertan egon zen eurakaz.

Zutunik (ezker-eskuma): Juli Ubillos, Tomasita Ayo (GB. Joskintza-irakaslea), Miren Basterretxea (GB), Juan Pardo (GB), Ana Mari Gorostola eta Juanita Garai.

Makurtuta: Lola Carrasón, Bene Markaida, Edurne Aldekoa eta Victoria Markaida.



© JUANITA GARAIK UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora

TESTUA

Nahikari Ayo Acebo

DOINUA

O baserritxo

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Barroteak

Begiak erne eta ixilik gure aurrean katua, gurako neuke hortik askatu luzatuz nire eskua. Aske izan zen azken aldia dauka guztiz ahaztua, begiradagaz apurto nahi du hor den barrote estua.

Etxe barruan, gizaki artean horrela dago hazia ta gizakiok aldarrikatzen askatasun eskasia. Animaliek egin behar dute gozatu haien bizia, eta ez sufritu eta igaro bizitza osoa itxia.

Barrote artean izan daiteke dena triste zein iluna. Egun denetan amesten dugu ez dugun askatasuna, gizakiok zein animaliek argi izan behar duguna: gure ametsak egia bihurtzeko iritsiko da eguna.



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua